

ttipi-ttapa

1993.eko Azaroak 18

122. zenbakia

dohain banatzen da



**Ehiztariak eta ez-ehiztariak:
ELKAR ADITZERIK BAI?**

argazkia: Josemanuel IRIGOIEN

"TURISMO Y DESARROLLO ECONOMICO"
"TURISMO ETA DESARROILO EKONOMIKOA"

Erakusketaren inaugurazioa azaroaren 18an, arratsaldeko 7etan izanen da

non - zer

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Pello Apezetxea, Juainas Paul, Cristina Boan, Bittori Telletxea.

Ale honetan parte hartu dute: Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Ainhoa Mutuberria, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, Patxi Otxandorena, Joseba Azpiroz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari Saizar, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa eta Josetxo Susperregik.

Argitaratzailea: *ttipi-ttapa*.

Laguntzaileak: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea, Goizueta, Leitza eta Berako udalak...

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85

Tirada: 5.600 ale

Hierriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa.: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

4 AGENDA Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 HONTAZ ETA HARTAZ

8 IRAKURLEAK MINTZO

9/24 HERRIZ HERRI

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarena, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta... Lesakako feriei buruzko gehigarria

25 ERREPORTAIA: Ehizaren alde eta kontrako arrazoiak mahai baten inguruan bilduak.

Joxemanuel Irigoien

28 KIROLAK: Tiburtzio Arraztoa: «Laxoa ez da kirola bakarrik, gure kultura eta historiaren zati bat da».

Aitor Arozena

30 MERKATU TTIKIA



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko laguntza jaso du

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaie592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450805

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Donéztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Doneztebe.....(908)776314

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaie592255

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Botikak

► **Azaroaren 20-21ean**, Bera, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Azaroaren 27-28an**, Arantza, Ituren eta J. Iturralde (Elizondo).

Zinema

► DONEZTEBE

Azaroaren 20-21ean 'Ellas dan el golpe'. **Azaroaren 27-28an** 'El último mohicano'

Bestak

► LESAKA

Feriak azaroaren 24 eta 25ean. (ikus erdialdeko gehigarria)

Bertsoak

► LESAKA

Azaroaren 25ean, feria egunean, eguerdian eta arratsaldean plazan, Euskitze, Egaña eta Lizaso.

Arrano elkartean, Zetan bertso bazkaria, Lizaso eta Peñagarikano bertsolariakin.

► BERA

Azaroaren 27an, arratsaldeko 6,30etan,

bertso paper lehiaketaren sari banaketa eta bertso saioa: Amaia eta Aitor Telletxea, Estitxu fernandez, Iñigo Olaetxea, Manolo eta Estitxu Arozena, Xabier Silveira eta Bittor Elizagoien bertsolariakin. **Gai-jartzaileak:** Xabier Erkizia eta Saioa Mitxelena.

► ETXALAR

Azaroaren 27an, bertso afaria 'La Basque' jatetxean. Bertsolariak: Peñagarikano, Lizaso eta Manolo Arozena. Antolatzailea Etxalarko Udala eta Arte eta Kultura

Bota bertsoa



Maribeltxa UNANUA

Baztango Bertso Eskola

Gaia: Euskal Herriko Bertsolari txapelketa

Doinua: Txoriak eta txoriburuak (Anje Duhalde)

Txapelketa hau martxan jarri da bertzetan ohi den bezela Euskal Herrian bertsolaritzak arrakasta du itzela jakina da ba partehartzaile ugari izanen dela bertso onenak (eg)iten ditunak eramane du txapela.

Bertsolariak jasango dute noski urduritasuna baina haiengan izango dugu guk miresgarritasuna bertsolari ta zale artean sortuz gero batasuna erabat ona izan daiteke bertsoen etorkizuna.

Erakusketak

ELIZONDO

GAMAZADA

Azaroaren 20an, Elizondoko plazan, Gamazadari buruzko erakusketaren barnean 'Monteagudoko paloteado' dantza. Dantzazten duten bitartean, Gamazadaren inguruko bertsoak kantatuko dituzte.

Arizkuneneako argazki zaharren erakusketa berriz, hilaren 30ean bukatuko da.

Kontzertuak

BEINTZA-LABAIEN

Beintzako Ostatuan, azaroaren 20an gaueko 11,30etan jazz emanaldia 'Jeff Jazz Band' taldearekin.

LESAKA

Atxaspi Ostatuan, azaroaren 20an, gauean, 'The Perverts' Holandako taldea.

Gastronomia

OILAGORRAK SALTSAN

Osagaiak

4 lagunendako:

4 oilagor, olio litro 1/4, 2 tipule, 4 azenario, 2 kopa cognac, 1/2 litro ardo txuria, 1/2 litro haragi salda, 50 gr. gurin eta gatza.

Oilagorrak lumatu ondotik hestea atera eta aparte utzi. Hestea txikitu, eta gurin,



Benar ZABALETAk emana
ARAKINDEGIA - LEITZA

cognaka eta gatza pixka batekin nahasi. Oilagorrak fre-

jitu eta gorritzen direnean fuente batera atera. Olio horrekin kazuela baten jarri tipule eta azenarioak. Hauek gorritu ondotik oilagorrak kazuelan jarri eta cognakakin flambeatu, gero ardo txuria, hestea eta salda bota eta egosten utzi. Oilagorrak egin ondotik kazuelatik atera eta turmixtik pasatu. Fuente batetan ezarri eta serbitzeko ogi frejituakin jarri.

Baserriko feria



ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 3.000 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 122 pzta/kilo **Zerramak**: 75 pzta./kilo bizirik.

BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....630
1.koa.....590
2.koa.....555

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....650
1.koa.....610
2.koa.....570
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 400 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 460 Pzta./Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 22.000 artean eta idixkoak 35.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 38.000 eta idixkoak 48.000 Pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



OTORDUAK • LOGELAK
Tfnoa: 450793

❖ Zure ingurua klase guztiko inektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz!



☎ 63 01 55
BERA

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91



SANTAMARIA

Jatetxea

Especialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43
DONEZTEBE



11 galdera ilabur

Zinema



► Kontxi Igoa

Lesakako Erosle dendakoa

- Gorritzen zara noizbait? Bai, aunitan.
- Zer etzenuke sekula eginen? Norbait hil.
- Zer izanen zinateke dendaria ez bazina? Eskulanak gustatzen zaizkit.
- Amets bat? Mundu guzia kurritu.
- Irakurtzen duzu komunean? Bai, egunkaria.
- Zeri diozu beldur? Oinazeari.
- Zer da zure buruan gehien gustatzen zaizuna? Gauzak hotz-hotzean egiten ditut.
- Zein opari eginen zenioke lagun bati? Liburu bat.
- Bizikletan ibiltzea gustatzen zaizu? Bai, baina ez dut denborarik ibiltzeko.
- Zein da klienterik hoberena? Hobe-na, dirua duena.
- Zein da dendarik onena? Dendariak klientea entzun egiten duena.

Arrivederci FELLINI


Federico Fellini zinegile italiarraren heriotzarekin agur erraten diogu zineak azken urteotan eman duen zuzendari berexi eta onenatariko bati.

Bere lan guztiak hagitz pertsonalak dira, bere esperientzia eta sentsibilitate-tik sortuak. Hailere, bere autobiografia hori, guztion biografia zen azken finean.

Fellinik gorabehera dexente izan zituen bere eginkizunean eta bere inspirazioan, Hitchcock edo bertze hainbat zuzendari bikainek beza-

laxe. *'La ciudad de las mujeres'* grabatu ondotik, hainbertzek bukatua zegoela uste zuten, berak egindako aurkikuntza guztiak klitxé hutsa bihurtu zirela, alegia. Baina, lanerako zuen gogo ikaragarriak bultzatuta, ez zuen nahi momia famatua soilik izatea (*'La dolce vita'* edo *'Amarcord'* filmeengatik ezaguna).

Geroztik, hainbat proiektu originaleginditu, *'Y la luna va'*



filmetik hasi, *'Ginger eta Fred'*, *'La entrevista'* rekin segituz, bere azken pelikula arte, bere testamentu misteriotsua den *'La voz de la luna'*

arte. Orain bere pelikula aunitz eta berari buruzko zikloak telebistaz ikusteko aukera izanen dugu.

MARIANO



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Zureko zoletan nahi duzuna

BERA © 630735

IRUN © (943) 622305



MALDAERREKA S.A.

FUNERARIA ZERBITZUA

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa

Altzate 28 - BERA

LEGARRA

- PAPERTEGIA • TABAKOAK •
- LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZU BERRIAK

- ⇒ Fax Publikoa
- ⇒ Enkuadernazioak
- ⇒ Inprenta lanak • fotokopiak
- ⇒ EGUNKARI hauek SALGAI
- Diario Vasco, Diario de Navarra,
- Navarra Hoy, El Mundo, As, Deia,
- Diario 16, Egin, Egunkaria, Marco,
- El Pais

Legarra 9, © 637030 - LESAKA


Bortzirietako Hiri-hondakinen Mankomunitateak

71 milioi pezetako aurrekontua izanen du datorren urterako

Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitateak bere azken bileran 1994ean izanen duen aurrekontua onartu zuen: 71.399.000 pezeta. Urtaririlaz geroztik izanen diren tasak ere onartu ziren.


Honetaz gain, bilera berean aipatu zenez Mankomunitateak Hirurteko plangintzarako eskatutako

zenbait inbertsio onartu ditu Nafarroako Gobernuak, guztira 41 milioi pezetapasatuak. Horietatik 31 milioi zabortegean zenbait hobekuntza egiteko erabiliko dira, 7 milioi bilketa selektiboaren zerbitzua paper eta kartoi biletarekin hobetzeko eta ia 3 milioi t'erdi administrazio bulegoa egiteko.



Paper eta kartoiaren bilketa selektiboa egiteko 2 milioi t'erdi hartuko ditu Mankomunitateak Nafarroako Gobernutik. Bertze 2.735.000 pezeta, ohizko eta beirarako kontenedoreak erosteko eman dira.

Zerrikumearen prezioa produkzio kostearen azpitik



Leridako merkatuan zerrikumea 2.000 pztatan dago eta zerri-gizen kiloa 117 pztatan.

Zerriaren sektoreak aspalditik ezagutu duen egoerarik larrienean bizi da estatu espainolean. Nafarroako Gobernuaren menpeko den ITGk eza-gutzero eman duen estudio batek dioenez, zerrikumearen produkzio kosteak prezioak baino dexente altuagoak dira, eta ondorioz, Nafarroako zerriaren sektorearentzat, bere osotasunean hartu-

ta, 1.228 milioi pezetako galera ekarriko du honek. ITGk eskeintzen dituen datuetan ageri denez, 'zerrikumeak haztea ez da errentagarria, eta errentagarri izatekotan hagitz ongi neurtu beharko dira inbertsioak eta punta-puntako teknologia erabili'. Prezio gora-beheren gainetik, sektore osoa estrategia amankomun baten faltan dago.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



GURE TXOKOA ELKARTEAREN OHARRA

1993ko urriaren 27an, Gure Txokoa Elkarteko Junta Nagusiak, sesio berezian bildu ondoren, zera adierazten du:

Azken egunotan gertatutakoaren aurrean, eta oraindik egun, elkarte honek lehendakariordea den Andoni Garbisurikiko komunikabideek zabaldu-tako berrien aurrean, elkarte honek gogor salatzen du eta gaitzesten dituela bere pertsonaz esandakoak; terrorista, bitartekari, lanzadera dela errepikatu bait da. Aldi berean, edozein gizakik merezi duen errugabe presuntzioa zor zaiola uste du, bere elkarte, bere herria eta gure kultura maitatzeagatik bakarrik akusa dakioke-elako.

Gure Txokoa Elkartearen alde emandako astia eta eskaintza, bai lehendakariorde gisa, baita herriko gaztediaren animatzaile gisa, baita herriko gaztediaren animatzaile gisa, da esandakoaren frogarik garbiena.

Bere familiak bizi duen egoera latzaren aintzinean, Juntak, haiekiko elkartasuna adierazi nahi du.

Gure Txokoa
elkartearen izenean,
Lupe Mendigutxia
lehendakariak

HORRELA BIZI BEHAR AL DUGU?

Aresoarrok daukagun haserre adierazi nahi dugu elizeko etxean bizi diren jendetaz. Guk geure etxean ordaintzen ditugu zerga batzu, dirua soldatetik ateraz; ba horixe da gure arazo nahiko larria: eliz etxean bizi diren jende hauek Aresoko

elizaren kontu korrontetik bizi dira, errezago konprenitzeko, guk igandero botatzen dugun dirutik, asko ez izanda ere. Jendea konturatu dago ia zertarako izaten den guk botatzen dugun diru hori, edo kofradietan ordaintzen duguna, eta horregatik ez dugu dirurik botatzen. Juan Bautista Irazoki Leitzako parrokoa obispadura joan zen eta esan zuen nola zen famili behartsu bat eta etxea uzteko zeren eta ez zuten non eroririk, eta horrela eman zitzaien. Hau sinisten dugu, baina sinisten ez duguna da familionen buruak ez duela inon lan egiten zeren eta gure kontura ondo bizi da. Eskatu nahi dugue egoera mixerable hau bukatzeko eta Juliori esan alferrik ez kontsumitzeko. Ez dugu la-

nik egiten alferrak mantentzeko, eta gizon hau gutxiago, ez baita saiatzen ogibide bat aurkitzen.

Aresoko herritar bat

ELIZONDOKO ITURRI MAITEA

Aurten guri tokatu zaigu Lekarozko institutoan UBiko ikasketak egitea. Ohitura den bezala ikasbidaia antolatzea pentsatu genuen. Bidaia oso garestiak dira eta nola edo hala dirua lortu beharra dago. Horretarako, Elizondoko ferietan taberna bat jartzea erabaki genuen.

Hori dela eta ferietako antolatzaileengana jo genuen baimena eskatzera. Leku egokia bilatzen saiatu ziren: Elizondoko abesbatzaren plazan. Leku ezin hobea iduritu zitzaigun eta lanari ekin genion, baina hara

non, ferietako ostira-lean, Elizondoko alkatea hurbiltzen zaigun zenbait kexa jaso zituela esanez, gure txabolak iturri 'zoragarria' estaltzen zuelako. Gure ustez, iturria hantxe dago urte guzian zehar edonork ikusteko. Hau kasualitatea, ferietan ikusi nahi zuten! Hala ere, igande goizetako dena bildua, desmontatua eta garbia! utzi genuen. Orain, kexak egin dituztenak han ikusi nahi ditugu egunero euren iturri maitea ikusten.

Denak ez ziren gauza txarrak izan eta eskerrak eman nahi dizkiogu Elizondoko alkate eta antolatzaileei, amaiurtar eta aniztarrei, laneginetagunduzuten guztiei eta, nola ez! tabernara azaldu zineten guztiei.

Lekarozko UBiko
ikasleak

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



**ERRO
BIDAIAK**

BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

✕ HERRIAK
✕ MENDIAK
✕ TURISMOA
✕ TREKING eta
BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUANAKALEA, 5

☎ 943 - 615177

☎ 943 - 619489

FAX 943 - 619517

20.300 IRLEN



Errefreskoak, Ura, Ardoak, Likorrak, Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 • BERA

Udalak Isidoro Fagoaga zenaren liburutegia eskuratu nahi du

Duela 8 urte Gure Txokoan utzia dago behin behineko

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Isidoro Fagoaga zenak Gure Txokoari behin behineko utzitako liburutegia eskuratu nahi du udalak, eta hortarako, elkarte honetako ordezkariekin elkarriketatzeko nahia agertu du. Josu Goia kontzejalak adierazi duenez, 'beharrezkoa da bi aldeak biltzea eta behin betikoz aferrahonari bukaera ematea'. Kontua duela zortzi urte inguru hasi zen Isidoro Fagoaga zenaren liburutegia Gure Txokoa elkartearen esku gelditu zenean, orduan ez baitzegoen udal-liburutegirik. Gaur egun ordea, martxan dago Udal Liburutegia, eta udalbatzaren asmoa liburu horiek bertara pasatzea da. Zenbat liburu diren zehazterik ez badago ere, denetarik dago: musika eta literatur liburuak, nobelak...

Isidoro Fagoaga (1893-1976) musikari eta idazle ospetsua izana da. Berak idatzitako liburuez gain, bizitza osoan bildutako liburuez osatua dago bere liburutegia.

Gure Txokoak martxoan egingen duen Batzarrean erabakiko da aferrahonaren soluzioa.



Bertso paper lehiaketaren sari banaketa azaroaren 27an egingen da

Azaroaren 27an, arratsaldeko 6,30etan banatuko dira Kultur Etxean, Gure Txokoa elkarteak, Nafarroako Bertsolari Elkartek eta Berako udal kultur batzordeak antolatutako bertso paper lehiaketaren sariak. Sariak banatu ondotik, bertso

saioa izanen da leku berean.

Ondotik bertso saioa Amaia eta Aitor Telletxea, Estitxu Fernandez, Iñigo Olaetxea, X. Silveira, B. Elizagoien eta Manolo eta Estitxu Arozena. Gaiak X. Erkizia eta Saio Mitxelenak.


W ttipi-flash

□ **San Esteban** elizako organoak ehun urte bete-ko ditu 1995ean. 'Nafarroako Organoaren Lagunak' elkarteak, aitzaki hori dela eta, urte horretan zenbait kontzertu antolatze-ko asmoa agertu du. Udalbatzak bere aldetik organoaren egoera txarraz kezkatua dago eta moldaketa sakon bat egiteko intentzioa du.



Bortzirietako VII. Gasna Lehiaketan Joantzenekobordako Periko Telletxeak eskuratu zuen hirugarren saria. Lehenengoa Arantzako Otsarrak eta bigarrena Etxalarko Basatek.

LOZOTEGI - JAIZONE



Itzea 3, 630786 - BERA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

BOTXO
ostatua


Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

TXOKOA OSTATUA

- × Egune-ko menua
- × Asteburutan, kaxuelak eta karta
- × Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta
- × Pintxo- en espezialduak
- × Gazte giroa

Tfnoa: 630286, Altzate • **BERA**

SAROB
okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - **BERA**

LESAKA

Herri Asanbladak erantzun egin dio alkateak luzatutako debate deialdiari

AITOR AROZENA

Alkateak zenbait komunikabideetan errandakoaren arabera, "Lesakan, hagitx pertsona guttirekin egiten diren manifestazioetan nire, nire kar-goa eta nire alderdiaren kontra oihuak botatzen dira eta gero ez dira demostratzen". Alkatearen ustez, oihu eta pintadak egiten dituztenak "bizitza osoan deus lortu ez duten frustratuak eta gaizki hezitako haurrak dira, guztien artean talde 'fashistoideak' osatzen dutenak" eta debate publiko baterako deia luzatu zuen. Jendearen pazientziak muga bat duela eta bukatzeko puntuan dagoela ere erran zuen.

Herri Asanbladak, "lau frustratu eta haurren" izenean, debate deia hartu du. Plaza Zaharrean egiten litzateke, alkateak nahi duen ordu eta egunean.



Kanposantuaren zerbitzuak emateagatik ezarritako tasak betirako onartu dira, ez baitzen inolako alegaziorik azaldu. Beraz, hilobi bakoitzeko 91.536 pezeta ordaindu beharko da eta bertze 8.000 pezeta lur-emateko. Panteoien prezioak, aparte...

Herriko hainbat lekuetatik ebatsi dute azken asteotan

Hainbat ebasketa egin dituzte azken asteotan herriko leku ezberdinetatik.

Errate baterako, Kamenero ostaturik urdaiaz-piko bat eraman zuten eta Zialdo eta Kattu ostaturik dirua, Antxordoki ileapaindegitik bezalaxe.

Gehienetan, atea irekia zegoela probextuz sartu ziren lapurrak.

Oilategi batetik berriz, oilaskoak eraman zituzten, baina lepoa bertan moztuta eta buruak bertan utzita.

Beraz, kontuz ibili.

ttipi-flash

□ Euskal Telebistako 'Hor dago koxka' saiora joateko asmotan dabil gazte koadrila bat. Autobusa debalde paratzen du ETBk eta joan nahi duenak telefono hauetara deitu behar du: 637123 edo 637136.

□ FERIA egunean bertso bazkaria izanen da Arranon, Xebastian Lizaso eta Peñagarikano bertsolariekin. Txartelak 3.000 pezetan salgai daude Arranon bertan. Enkargatzeko 637891 telefonora deitu.

□ III. Mendi bizikleta ibilaldia antolatu du Beti Gaztek hilaren 28rako. Lesakatik aterita Erramuegi, Amargun, Gardelko Bagoeta, Agiña, Ikatzulo, Goiko Iraga, Zala eta Biurgarai barna, berriz ere herrira itzuliko dira (20 km. inguru). Irteera 10etan izanen da eta izen ematea ordu bat lehenagotik (700 pzt.).

ONIN
Agentzia

Albistur 53, ☎ 637359 - LESAKA

- ☛ Aseguruak eta kontabilitatea
- ☛ Errenta eta IVA deklarazioak
- ☛ Eskrituren likidazioa
- ☛ Edozein aferetarako ofizina
- ☛ Zunzarren-en kolaboratzaileak

BEKO ERROLA

Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14

Beheko Plaza 8, LESAKA

LORA DENDA


TXIRULA
Bittiria ☎ 627542 LESAKA

bitxikeriak • opariak • eskulangintza

ARRATZUBI
ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

Neguko ikastaroak, EPA eta Guraso Elkartearen eskutik

Bertzalde, eskolako behealdeko zati irekia itxiko du udalak

PELLO eta ALBERTO

Iaz arbola kimatze eta honen inguruko ikasketak egiten aritu zen talde bat, EPAREN eskutik. Aurten ere, hamabortz bat lagunek badute asmoa horretan segitzeko. Bertzalde, eskulaneke ikastaroa antolatu du Guraso Elkarteak, bi edo hiru hilabetez Zelaiko M. Puyren zuzendaritzapean luzatuko dena, eta horretarako ere hamabortz lagunek izena eman dute.

□ **Eskolaurreko** gelaren luze-zabalera tikiak behartuta, Landagain eskolako behealdeko zati irekia itxi egingen du Udalak, irakasle taldeak eskatu bezala. Ia hiru milioikoa den aurrekontuaren % 65a



Animen Eguna. Joandakoak gogoratuz, loreak kanposantuan

Nafarroako Gobernuak ordainduko du. Obrak urte bukaerarako burutzea espero da.

□ **Euskal** mintzaeraren neurketa egin da Etxalarren hilaren 10 eta 13an,

Euskal Kultur Batzarraren eskutik, karrikan zenbatek egiten duen euskaraz, alegia. Neurketa Euskal Herri osoan egiten ari dira, eta Bortzirietan xehekiago Etxalar, Bera eta Lesakan.

W ttipi-flash

□ **Usategietako** usazaleek azaroaren 7rako 106 dozena uso hartuak zituzten. Egin duen eguraldia kontutan edukiz, aunitz dira harrapatutakoak; iaz 120 dozena hartu zituzten eta orain bi urte 60.

□ **Fonda** hartzeko eskeintza, Arotzengan bizi den Jabier Urmenetak eta Alix Mitxelena lesakarrak, elkarrekin egin dute.

□ Nahiz eta **ehiza** munduan gezurrak izaten direla denok jakin, aldi honetan notizia egiazkoa dela iduri du: Bautisteneko Sergiok tiro batez bi uso hil dituela, alegia.

**SASKI
OSTATUA
LESAKA**

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

IRAGARKI HAU 5.600 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA

PUBLIZITATERAKO

ttipi-ttapa ERABILIZ GERO



KATTU

**OSTATUA
JATETXEA**

- Karta

- Eguneko menua



Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • **LESAKA**

KOXXKONTA



Agardoa
botiletan
salgai

Deitu
erreserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

IGANTZI

Behin betikoz onartu dira Arau Subsidiarioak

San Juan Xar arras itxura aldatu zaigu

OSKAR TXOPERENA

Zortzi urte inguru pasatu dira dagoeneko Arau Subsidiarioak egiten hasi zenetik. Geroztik, hainbat aldaketa, erreklamazio, onarpen etabar jaso behar izan ditu, baina, azkenean iduri du badugula zertan oinarritu herriko urbanismoa zuzentzeko. Izugarri interesgarriak dira edozeinek ikusteko.

San Juan Xar itxuraz aldatua

Azken bolada honetan maiz aipatzen dugu San Juan Xar. Duela aste batzuk zubia moldatzen ari zirelako eta orain berriz, inguruko txopo guztiak kentzen ari direlako. Zaila



1940ko maiatzaren 4ean ezkondu ziren Bixente eta Oliba, biak 25 urte zituztela. Irailaren 30ean omendu zituzten Elizondan, Urrezko Ezteiak beteak dituzten guztiekin batera. Ea Igantzin egoera honetan dauden bikote guztiak ateratzen ditugun poliki-poliki



baldin bazen orain arte kobazuloa bidetik ikustea, ageri agerian gelditu da orain, zenbait platano eta altza bakarrik gelditu baitira zutik. Udalak altza ge-

hiagoz eta karpe delakoaz beteko omen ditu hutsuneak.

Jubilatuak gimnasia

Jubilatuak berriz, ez

omen dute bertzeak baino guttiago izan nahi eta gimnasia ariko omen dira hemendik aintzinerara. Ez dago batere gaizki lehendabiziko aldiz eginen dela jakinik.

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - **BERA**

**IRAGARKI HAU 5.600 ETXETAN SARTU DA
ZUREA ERE SARTUKO DA PUBLIZITATERAKO**

TIPI-TIAPA ERABILIZ GERO

ESTHER ATEAK, C.B.

Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA
☎ (943) 610319 - IRUN

- ➔ **Parket flotantea**
- ➔ **Tarima**
- ➔ **Kortxoak**
- ➔ **Ate korredoroak dituzten armarioak**
- ➔ **Paretan sartzeko armarioak**

LANCASTER

P A R I S

LANCASTERek SKIN THERAPY sistemaren bitartez kosmetikaren mundua arras berritu du: oxigenoarekin zimurren marka %40an tikitzen du eta %10ean zimurren kopurua. Zatoz eta probazazu dohain zure LANCASTER denda



Amezitia karrika z/g • © 450163 • DONEZTEBE

Otsarrakoak irabazle Bortzirietako VII. Gazta Lehiaketan

Beran burutu zen, Lurraren Egunaren barnean

MARTA ITURRIA

Urriaren 31n Beran ospatu zen Lurraren Egunean Bortzirietako VII. ardi gazta lehiaketa ospatu zen.

Bertan, Arantzako Larretxea anai-arrebek, Otsarra baserrikoak, lehen saria eskuratu zuten. Ez da lehen aldia sari hau lortu duteneko, 1991. urtean ere lehenak izan baitziren.

Sari bezala 12.000 pezeta, plaka oroigarri bat eta Zalain jatetxean afaria eman zizkieten. Sari banaketaren ondotik egindako subastan berriz, 10.000 pezeta eman zizkieten gazta irabazlearen truke.



Otsarra baserriko gaztak irabazi zuen Berako VII. Lurraren Egunean egindako lehiaketaren lehen saria Arg.: Joxemanuel

☐ **Herriko kadete** mailako mutil talde bat, Joxe Ramon entrenatzaile dutela, Nafarroako txapelketan parte hartzen ari da. Ez dira sobera ongi hasi, 3

partidotan (bi Arantzan eta bertzea kanpoan) puntu bakarra lortu bait dute. Izan ere aurren ari dira lehen aldiz, orain arte saskibaloit taldea bait zen.

☐ **Eskola** eta medikuaren etxea datorren urtean garbitzeko proposamenak aurkezteko epea azaroaren 30ean bukatzen da.

☐ **Herri lurrari** buruz, Nafarroako Gobernuak teknikiariak egindako txostena onartu zuen udalak azken plenoan. Konbenioan sartzeko proposatzen diren partikular guztiei bat banaka deituko zaie, konbenioaren xehetasunen berri izan dezaten.

☐ **Amaia Telletxeak** parte hartu du Euskalerriko Bertsolari txapelketa nagusian. Bera izan zen bertsolaririk gazteena.



ATERPE
jatetxea

Tfnoa.: 63 41 79
ARANTZA

Zati honek **2.443 Pta.** balio du
2.443 Pta : 5.600 errebista = 0,43 Pta.
errebista bakoitzeko



anquerreta S.L.

BULEGORAKO MOBLEAK ETA MAKINAK

Soroxarta Pabeloiak 3-A, Anaka Auzoa

Tfnoa: 943 - 61 02 22 - 61 44 34

Fax. 943 - 61 44 34

20300 IRUN

- ☐ Moble ekonomikoenetatik hasita 'standing' altuenekoak bitarte
- ☐ Fotokopiagailuak, erregistratzaileak, telefax eta bulegoko edozein makina.
- ☐ Gure eskeintza **sofa eta etxebizitzarako konplementoekin** zabaltzen dugu.
- ☐ Erakusketa zabala. Eskariak abudo serbitzen dira.
- ☐ Parkin pribatua daukagu.

SUNBILLA

Ramon Latasari monumentoa egingen zaio

Olentzeroko entsaioa, bertzalde, hilaren 27an egingen da


IXABEL eta JOSUNE

Aurreteneko Mikel Latasak lur-zati bat eman dio herriari Ramon Latasari monumento bat egiteko. Udalak proiektua ikusi ondoren onartu egin du eta asmoa bete ahal izateko dirulaguntzak lortzen saiatuko da.

Olentzero prestaketa

Azaroaren 27an, Arantxaren garagean, Olentzeroaren entsaioa egingen da herriko haur guzietan, iaz bezalatsu. Olentzero egunean hartuko den diruarekin buruhaundi bat erosiko da, eta kurtso bukaeran, haurrentzat zuzendutako erakusketa egingen da.

Aurreteneko Mikel Latasak lur-zati bat eman dio herriari Ramon Latasari monumentu bat egiteko.



Igerileku berria

Igerilekua datorren urterako egingen dela iduri du. Orain arte egin gabe dago dirurik ez dagoelako. Azkenean, proiektua aintzineratzen atera da eta Nafarroako Gobernuak diru zerbait emanen du.

roako Gobernuak diru zerbait emanen du.

Paleta goma txapelketa

Aurten 15 bikotek jokatu dute Sunbillako hirugarren paleta goma txapelketa. Hauetatik bi sunbildarrak dira.

txapelketa. Hauetatik bi sunbildarrak dira.

Lehenbiziko bi urteetako finalak bikote berek jokatu dute. Iazko txapel-dunak Ibarra-Maritxalar sunbildarrak izan ziren.

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 DONEZTEBE

Ytatare Neguko arropa bero eta politak



A R R O P A K

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE



Amezitia karrika z/g
Tlf. 450163 • DONEZTEBE

**Lurrindenda
Oparidenda
Apaindegia**

AZKEN NOBEDADEAK:

- LANCASTERen Skin Therapy: Larra-azaleko kosmetikan azken orduko nobedadea eta oxigenoaz baliatuz.
- Parfums JOOP!: Alemanian gehien saltzen dena.
- INTEGRAREN kosmetika: prezio eta kalitatearen arteko erlazio hoberena.
- Udazken eta negurako azken kolekzioak pañuelo, boltso, bitxitegi, estalki, euritako... eta sasoi honetako LANCASTERen kolore berriak.

APAINDEGIAN:

- Tratamendu berriak (zelulitis, barizak...) Bouchet doktorearekin batera.
- Hileak kentzeko sistema elektriko berria.

Erosketa bakoitzeko opari bat dugu zuretzat!!

'Langarra' euskara taldea sortu da

Mankomunitateak borts langile kontratatuko ditu

TXEMA ALDABE

Malerreka eskualdean, Bertizarana eta Sunbilla barne, euskara egunero erabili eta euskaraz bizitzeko bideak landu eta gauzatzen saiatuko den talde bat sortu da, 'Langarra' izenekoa. Oraingoz, 15-20 pertsona hasi dira ilusio haundiz lanean eta euskarari bere prestigioa eman nahiean. Doneztebeko ferietan euskal gune bat antolatuko da eta "euskaraz saldu euskaraz erosi" lemarekin pegatinak banatuko dire. Talde honen barnean, borts edo sei pertsonen osatutako talde eragileak izanen da, maiz bilduko dena eta urtean zehar inizatibak sortzen eginahaletan arituko dena.

Honetaz gain, eskualdeko herri guzietan laguntzaileak izanen dira.



Malerreka osoan euskararen aldeko ekitaldiak antolatuko ditu 'Langarra' taldeak

Malerrekako Mankomunitateko langileen kontratazioarako deialdi publikoa luzatu da

Gaur egun lanpostu hauek beterik badaude ere, ez Malerrekako Mankomunitatearen izenean. Hori dela eta deialdi publikoa egin da lanpostu hauek betetzeko: Gizarte zerbitzurako asistente soziala, administrari laguntzailea eta bi etxeko etxeko

zerbitzurako eta azkenik euskara teknikari lanposturako.

Lehenbiziko biak lanpostu fijoak izanen dira eta gainontzeko hiruak aldi baterako kontratatuak. Deialdira aurkezteko epea abenduaren 8an bukatuko da.



Patxi Mindegia Euskalerriko 2. mailako txapeldun

Azaroaren 7an Kanpe-zun jokaturako apostuan Patxi bi marka hautsi zituen. Bata, txapeldun gazteena izatearena eta bertzea orain artean maila hontan egin den denborarik hoberena lortzearena. Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta 72 ontzako bertze bi enbor mozteko 19'32" behar izan zituen, lehengo marka 8 segundotan jeitsiz. Gibeltik, Senosiain, Lopez, Matxiandiarena eta Txapartegi izan zituen.



TELLETXEA
MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- ☐ Edozein klase eta neurriko altzariak egiten dtugu. Fabrikanteak gara.
- ☐ Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- ☐ Armario enpotratuak.
- ☐ Tresillo eta tapizerietan aukera zabala
- ☐ Ordaintzeko erretasunak eta zure erosketengatik opari ona eramanez duzu

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

BEINTZA-LABAIEN

Sekula baino uso gehiago hil dituzte aurten ehiztariek

PATXI OTXANDORENA

Aurtengo uso pasa akituxea dagoenean, ehiztariak gustora daude, izan ere, sekulan baino uso gehiago hil dituzte. Hauetatik gehienak herriko ehiztariek bota dituzte Armalaundi mendian.

Herriko mendietatik lau kanpoko ehiztarien artean subastan ateratzen dira eta gainerako seiak herrikoentzat izaten dira. Herrian, 70

ehiztari inguru daude eta honezkero uso jate ederrak egin dituzte.

Herria txukuntzen

Obra dexente egiten ari dira herriko karriketan eta herria majo gelditzen ari dela erran behar. Honetaz gain, kanpora ezkontutabo bi emakumek eta herriko mutil batek etxe bana egiten ari dira, beraz, laister hiru etxe berri izanen dira.



Jazz kontzertua Beintzako ostatuan

Azaroaren 20an, izanen da Beintzako ostatuan 'Jeff Jazz Band' gaueko 11,30etatik aintzineraz jazz emanaldia taldearen eskutik.

ITUREN

85 milioi pasatuak aurtengo udal aurrekontua

Erdia baino gehiago inbertsiotarako da

IBAN ISASI

85.726.854 pezetakoa da aurtengo udal aurrekontua.

Diru sarrerarik haundiena kapital transferentzietatik (subentzioak) izanen da (40 milioi) eta irteerarik haundiena berriz, inbertsioei dagokiona (48.110.835 pezeta).

□ Itoizko Urtegiaren aurkako koordinakundeko

ordezkari bat egon zen Herriko Etxean hitzaldia eskeintzen urriaren 29an. Bertan, proiektu honi buruzko xehetasunak, ingurugiroan izanen duen inpaktoa eta azken aste hauetan izandako mugimenduei buruz eta Greenpeace eta Coda bezalako erakunde ekologisten eskutik Itoizen aurkako talde honek jaso dituen aldeko jarrerari buruz solastu zen.



BEINTZAKO OSTATUA

Tfn: 45 00 14

BEINTZA LABAIEN

Zati honek **3.664 Pta.** balio du
 $3.664 \text{ Pta} : 5.600 \text{ errebista} = 0,65 \text{ Pta. errebista bakoitzeko}$

Kamioiendako aparkalekua egiten hasiko dira Aparanen

Aurrekontuaren % 70a Nafarroako Gobernuak ordainduko du

TXEMA ALDABE

Aparan lantegi ondoan 5.500 m²ko lur zatiaren moldatze lana abudo hasiko da, lan hori egiteko eskeintzak joan den astean bukatu bait ziren, kontratazioa emana izanaren delarik dagoeneko. Lan hau egiteko aurkeztutako 6 eskeintza egin zutenekin bildu zen aparkalekuaren proiektua egin zuen teknikoa eta argi azaldu eta zehatz mehatz egin beharreko lanak, denok jakinaren gainean egon daitezten.

Aparkalekua egitea



Aparan inguruan egiten dute kamioiendako aparkalekua

kostatuko den 36 milioi pezetatik % 70a Nafa-

rrako Gobernuak ordainduko du, % 25a Donezte-

W ttipi-flash

□ **Giltzak**, karterak eta aurkitzen den edozein gauza dela ere, Elizaatariko iragarki-oholean egonen dira. Aspaldi xamar bertan dago giltzallabero bat.

□ **Txistu klaseak** emanen duen irakaslea, iazko bera izanen da aurten ere: Itziar Irigoien.

beko udalak eta gaineko % 5a Cederna-Garalurrek.

ZUBIETA

Hilabete honetan konponduko dute Zamalbide eskola

EPA ikastaroak, bestalde, ezin hasiz dabilta

AINHOA MUTUBERRIA

Zamalbide eskola hilabete honetan konponduko dute, hortaz, nahikoa arazo izanen dira haurtxoei klaseak emateko eta Elutsa elkarteak antolatutako dituen aktibitateak egiteko.

Nahiz eta Aurtizko bes-tak eta Doneztebeko feriak tartean egon, badago astirrik filminak eta pelikulak jartzeko edo herriko argazki zaharrak biltzeko.

Bestalde, jende asko omen dago kuotak ordaindu ez dituen. Ea animatzen diren.



Filminak eta pelikulak ikusteko aukera izanen da hilabete honetan.

EPA ikastaroak ezin hasiz

Zurgintza ikastaroa oraindik ez da hasi. Izena

emandakoak gutti zirenez, ez zuten irakaslea deitu ere

egin, baina orain bazter-rrak mugitzen hasiak dira.

GOIZUETA

Umore Onak bere atal desberdinak omendu zituen

Dantzariak, pilotariak, herri kirolekoak eta futbolariak izan ziren festaren protagonistak

ESTEBAN AROZENA

Azaroaren 6an eta ohizkoa bihurtu den festa zoragarri batean, bere atal edo sekzioak omendu zituen Umore Onak, egun osoa ekintza desberdinez betea egon zelarik.

Dantzariak, pilotariak, herri kirolekoak eta futbolariak izan ziren aipaturiko festaren protagonistak, guztien artean 110 lagun bilduz elkartean afaltzeko tenorean.

Dantza taldeko irakasle direnedo ziren Sole Etxegia, Rosa M^a Olaizola, Patxi Iribarren eta Elena Oiartzabalek ere, omenaldi berezia jaso zuten egindako lana eskertu asmoz.



Dantza taldeko irakasleak omenaldi jasotzerakoan
Argazkiak: Xabier Mikel UIZI



Akilino, 'Assura' 116 kiloko basurdearekin,
azken urteetan hartutako haundiena.

Bertso Paper Lehiaketarako lanak azaroaren 27rako bidali behar dira

Lehiaketa honen IV. edizioa antolatu dute Euskara Batzordeak eta Bertso Eskolak. Beste urteetan bezala herritarrei mugatua

dago eta bertsoak bidaltzeko modua ere betikoa da, hau da, lanak sobre batean sartu izengoitiz sinatuak, izen propioa bestean eta biak

elkarturik Postan bota. Epea azaroaren 27an bukatuko da. Sari banaketa, abenduaren 11n burutuko den jaialdi batean egingen da.

ARESO

Autobiaren inpaktoa konpentsatzeko, umeak jostatzeko parkea egingen du Diputazioak

JUANA M^a SAIZAR

Guraso elkartearen lanak eman ditu bere fruituak. Lopez Borderias, Herrilaretarako arduradunarengana jo zutenean, zera esan zioten: autobiaren obregatik trafikoa haunditu zela eta hortaz, umeek konpentsazioaren bat behar zutela. Honek, jostatzeko parkearen proiektua onartu eta bere gain hartu zuen. Orain dirua



emana dago. Aste pare baten barnean hemen izanen

da parke berria. Inaugurazioa abenduaren lehenengo

W ttipi-flash

- ☐ Jostunen ikastaroa hasi da. Iaz bezala 14 lagun eta Carmen Rezola irakasle.
- ☐ Dantza ikastaroa hasi dute umeek. Hirugarren urtea dute eta aurten, platan dantza saioak eskeintzeko moduko taldea lortu nahi da.

egunetan izanen da, pesta haundi baten inguruan.

Kale nagusiko zola eta espaloiak moldatuko dira


Asfaltoa bota baino lehen, zola etxe-sarrerren nibelera egokituko da

JOSEBA AZPIROZ

Nafarroako Gobernuak herriko zeharkalea moldatzeko obren gastua ordainduko duela segurtatu du (157.007.158 ppta.). Asfaltoa bota baino lehen, karretera etxe-sarrerren nibelera egokituko da eta nahikoa zabalera dagoen lekuetan aparkalekuak eginen dituzte. Zabaleroa sei metrotakoa izanen da. Espaloi edo azerak, berriz, Udalak egin beharko ditu eta dirulaguntza eskatu dio dagoeneko Diputazioari.

'Ekin euskarari' erakusketa

Eusko Jaurlaritzaren 'Ekin Euskarari' erakusketak Leitzan dugu azaroaren 12tik 28a bitarte. Hasiera batean abenduaren 12an bukatzekoa bazen ere, bi astez izanen dugu hemen, beste herri batek eskatu duelako. Udaletxeko Batzar Aretoan dago ikusgai 6 eta-



Ez da urte asko asfalto berria bota zutela.

Artxiboa

tik 9ak bitarte. Erakusketa-
ren helburua, euskara gizar-
teratu eta bizitzaren arlo
guztietan erabiltzeko bide
berri eta eraginkorrak es-
keintzea da. Hori lortzeko
panel, ordenadore eta 6
proiektore eta diapositibaz
baliatzen da. Une egokian
etorri da Leitzara, udalabide
beretik ari baita ahalegine-
tan azkenaldi honetan. Alde
batetik Karrape Irratia hasi
da emititzen, eta bestetik,

Udalerri Euskaldunen
Mankomunitatean sartu da
Udala eta herritarrei zerbi-
tzu guziak euskaraz emate-
ko konpromezua hartua du.

Cederna-Garalur

Azaroaren 25tik aurre-
ra, ostegun eta ostiraletan
10etatik 12etara, Cederna-
Garalurren mendialdeko di-
rulaguntzak bideratzen duen
teknikaria etorriko da Uda-
letxera.

W ttipi-flash

□ **Hautzaindegian** dagoen tximistorratz erradioakti-
boa kendu du Enresa en-
presak. Direla urte bat-
zuk, tximistorratz hauek
arriskutsuak izan zin-
tezkela ikasi zen bezain
laster kentzeko eskaera
egin bazen ere, ez dute
orain arte kendu, horre-
lako asko zeudelako ja-
rriak.

□ **Karrape** Irratiaren
'Inungo Txapelketarik'
saioan parte hartu dute-
nen artean zozketatu zu-
ten radiokaseta Ainhoa
Astibiak irabazi zuen.
Hurrengo saria Egube-
rrietako saskia izanen da.

□ **Larunbatean**, hilak 20,
arratsaldeko 7etan, Kul-
tur Taldeak antolatutako
antzerki saio bat izanen
dugu Zinemari: 'Bizirik
hago oraindik Fernando',
Xabier Mendigurenek
prestatutako obra.

IRAGARKI HAU 5.600 ETXETAN
SARTU DA
ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

Lorea eta Idorria

ileapaindegia

Tfnoa: 610907 - LEITZA

VITALICIO ASEGURROAK

M^a JESUS BARAIBAR ASTIBIA

• Herriko Plaza 5, Behea
• 31870 LEKUNBERRI
• © (948) 60 45 71

GRUPO
VITALICIO
SEGUROS

ADUR TABERNA

Pintxoak, kaxuelak eta bokatak

Tfnoa: 610864 • LEITZA

BAZTAN

Telefonica-ren zentrale berria egin da

42 milioi pezeta gastatu dira eta 1.728 linea digital izanen ditu

JOSEBA IGARABIDE

Elizondon Telefonica-ren zentral berria egin da. Zerbitzu berriarekin Aintzialde, Aitzano, Antzanborda, Arizkun, Ariztegi, Arraioz, Azpilkueta, Beartzun, Berro, Elbete, Elizondo, Etxaide, Etxerri, Gartzain, Irurita, Lekaroz, Marbea, Oharriz, Ordoki, Oronoz, Peralats, Uharte-Lekaroz, Ziga eta Zuraurreko beharrik beteko omen dira.

Zentral berri honetan 42 milioi pezeta gastatu dira eta 1.728 linea digital izanen ditu, 2.058ra zabaltzeko modukoak. Instalazio berriak (digitala) 1969an ezarritakoa ordezkatzeko du. Hainbat baserrietarat 'telefonía celular' delakoa (haririk gabekoa) paratzeko asmoa ere ba omen dute.

□ **Osasunbideak** udalari 9.155.205 pezetako subentzioa emanen dio Oronozen mediku kontsultorio berria egiteko. Baztango udalak obra hau 'Ignacio Telletxea eraikuntzak' enpresari eman dio, berak egindako 8.210.945 pezetako eskeintza baita merkeena.



Erratzuko frontoian egingen da Xorroxin irratiak antolatutako jaialdia. Frontoiaaren gibelkalden egiten ari diren lanak berriz, zererran dexente sortu dute herrian

Artiboa

Urritzate eta Zinzurreta birlandatzeko

60 milioi pezeta emanen ditu Nafarroako Gobernuak

Nafarroako Gobernuak, 'Leader' plangintzaren barnean, Baztango zenbait herri-lur birlandatzeko dirulaguntza emanen du aurtengo urtean.

Urritzate inguruan, bi urteotan 28.640.198 pezetako inbertituko dira. Zortzi milioi terdi aurtengo emanen dira langileak ordaintzeko eta datorren urtean 12 milioi emanen dira langileak ordaintzeko eta ia 8 milioi plantak erosteko.

Zinzurreta inguruan berriz, 32.250.093 pezetako inbertituko ditu Nafarroako

Gobernuak bi urteotan. 9.675.030 pezetako aurtengo langilegoa ordaintzeko eta ia 16 milioi datorren urtean kontzeptu berean. Gainera, 6.617.704 pezetako emanen ditu datorren urtean plantak erosteko.

□ **Ongizate Soziala**, Kirol eta etxebizitzako kontseilariak Baztango udalari 8 milioi pezetako eman dizkio Elizondoko futbol zelaian egin beharreko obregatik eta 4 milioi pezetako Anizko frontoia estaltzeko. Subentzioak obrak egindakoan emanen dira.

W ttipi-flash

□ **Amaiurko Gaztelu** Elkartearen afaria antolatu dute azaroaren 27rako, larunbata. Afal ondorengo Martikorena ariko da kantuz eta Jose Angel kordioa jotzen.

□ **Arizkongo** gazteek bilera bat egin zuten damu-nagusie aukeratzeko. Errefestan kontuak ere begiratu ziren.

□ **Erratzun** frontoian gibelkadeko obrak aintzineratzen doaz eta herritarrak ari dira ikusten zer egiten ari diren: tenis pista bat dela diote. Oraingo tartan moduko zementoa bota dute eta honen alde eta aurkakoak daude herrian.

□ **Xorroxin** irratiak hilaren 27rako gaupasa antolatu du: Tapia ta Leturia eta Zaldibobo taldeekin.

□ **Urriaz** geroztik zerri hiletetan bete beharreko arauak ezarriak ditu Nafarroako Gobernuak.

□ **Elizondoko** kanposantuan hilobiak dituztenak paperak berriro behar dute. Horretarako bertako alkaterekin egon behar da.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

ESKULANETARAKO MATERIALAK
Negurako BEROKIAK eta ARROPA

SAS KAITZ
fontanería
calefacción

Empresa colaboradora de



Era guztietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

Berroetako saneamendu lanak behar beharrezkoak dira

Horrela onartu zen Baztango udala eta Nafarroako Gobernuaren arteko bileran

PABLO MENDIBURU

Nafarroako Gobernuak eta Baztango udaleko ordezkarien arteko bileran Berroetako saneamendu lanak behar beharrezkoak direla eta lehenbaitlehen egin beharko lirakeela onartu zen.

□ **San Martinen** ohorez Berroetan urtero egiten zuten besta ez da egin aurtan, nahiz eta herriko patroia egunean, joan zen ortzegunear, txokolatada egin zuten emakumeek.

□ **Basaburuako** Herri Kirol taldeko partaideek bilera eta ondotik afaria izan zuten joan den larunbatean Anizko elkartearen. Bileran,



San Martinen ohorez urtero egiten zuten besta ez dute ospatu aurtan Berroetan
ARTXIBOA

datorren urterako taldea eta elkartearen alde dirua ateratzeko bertso saio bat erabaki beharra zen.

□ **Nafarroako** Osasunbideak eta Baztango udalak

aginduta Zigan ura hartzeko dauden arketei altura gehiago eman zitzaizkien auzolanean.

□ **Berroetako** Hegoalde elkartearen alde Donez-

W ttipi-flash

□ **Elizondon** jazz dantza ikasi nahi duenak Arizkunenean du aukera, bertan ematen baitira klaseak astearte eta ortzegunetan 5etatik 7ak arte, urritik maiatza bitarte.

□ **Baztango** udalak Iturri Ederra elkartearekin akordio batera iristeko asmoa du. Elizondoko uren % 90a Iturri Ederraren esku dago eta gainerakoa udalaren esku.

teben urriaren 31an egingadako bertso saioan jende poliki bildu zen eta bertso onak entzun ziren, nahiz eta espero baino bi bertsolari gutxiago izan

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia
453168 - ERRATZU

Eskisaroí jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

M^{te} Dolores Mirana TOPOGRAFOA NEURKETAK • PLANOAK



Lur neurketak
Luberriak

Plantazioak, etab.

Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO



ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure
karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz, gaztaina eta gerezi egurretan egindakoak

SARA

Urdazuri errekarari lotutako ospakizunak igande honetan

Donibane Lohitzuneko 'Jai Alai' pilolekuan Ibar huntako zortzi herri elkartuko dira


HUR, MIXEL eta JACQUELINE

Roger Idiart Ainhoako erretora eta Atsulai elkar-teari esker, Urdazuri ibarre-ko zortzi herri eta hiri elkar-tuko dira "Ura" gaiaren in-guruan; Urdazubi, Zugarra-murdi, Ainhua, Sara, Azkaine, Senpere, Ziburu eta Donibane Lohitzun. Ur-dazuri izeneko omenaldia honelaxe osatua da:

- 8 antzerkiño, parte har-tzaile bakoitxak gaia liberta-terik haundienarekin erabil dezake eta nahi bezala eman.

- Herrietako koralek el-garrekin kantu batzuk abes-tuko dituzte.

Besta hau Donibane Lo-hitzuneko Jai-Alaiaren iragan-en da azaroaren 21ean arratsaldeko Setan.



Pala Antxako finalak urriaren 31n jokatu ziren Kiroldegian:

Lehen maila:

Joset Olaso eta Iñaki St. Martin 45; Etchegaray Evelyne eta Claude 28.

Bigarren maila:

Francis Petin eta Patrick Perugorria 45; eta Mikael Vella eta Stéphane Barneix 38.

Hirugarren maila:

Walter Ferlin eta Patrick Perugorria 45; Pantxo Matxikote eta Serge Bats 22. Ondotik 50 bat lagun zikiro-jate baten inguruan bildu ziren.

Ipar eta hegoko arkeologoak elkarlanean Sarako Lezeetan

Orain dela berrogei bat urte aita Joxemiel Barandiaranek emandako urra-terseri jarraikiz, Francisco Zumalabe eta Christian Normad, mugaz bi aldeetako arkeologoek urriaren 25 eta 30 artean ikerketak

egin dituzte Sarako Lezeetan. Elies Tapia Lezeetako arduradunak azaldu duen bezala, *'lehenengo aldia da mugaz bi aldeetako jakintsunek kooperatzen dutela elkarlan batetan'*.

Ikerketa hauen ondorioz

tresna arkeologiko garran-tzitsuak atxeman dituzte (su-harri, hezur, perla, hortz...).


Orain beraz, segurtatzen ahal da leze hauek bizitegiak izan direla 25.000 urtetik aintzina.



KIWI BAZTAN, S. A.

FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN

ZUZENENKO SALMENTA



MINDEGIA eta BULEGOAK:

Sutegia Etxea
31795 LEKAROTZ

☎ (948) 58 11 01

Fax-a: (948) 58 11 01

Santiago 71, ☎ 580166



ELIZONDO

► Aluminio eta burdin aroztegia
► Toldoen instalazioa

ARLA

ARDOTEGIA

Ardoak eta likorrak

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

ZURE OSASUNA ETA
EDERTASUNAREN ZERBITZURA

Osasun fisikoa eta sikikoa
tratamendu naturalekin


...

Bizkarrezurreko arazoak

...

Zelulitisa eta loditasunaren
kontrako tratamendua

...



Jean Paul Bouchet

Doktorea

Inzakardi 3 - 1. A eta B • ☎ 45 16 42 • DONEZTEBE

Zati honek

2.443 Pta.

balio du

2.443: 5.600

errebista =

0,43 Pta. errebista

bakoitzeko

Asti libreari probetxua kenduz

Jantzigintza eta dantza ikastaroetan jende andana biltzen da aurten ere

ALIZIA OLAIZOLA

Jantzigintza ikastaroa urriaren 19an hasi zen. Anastasi Bidartekgidaturik, 18 emakume biltzen dire Herriko Etxeko lokalean. Dantza ikastaroak, bertalde, azaroaren 6an hasi ziren. Ainhoara, Atsulai elkarteak konpondurik, herriko haur andana joaten da larunbat arratsaldero. Sarara ere hiru neska joaten dira ortziral arratsetan. Azken hau Zazpiak Batek antolatua du.

□ **Egin-eko Mus**
Txapelketa Indiano-Baitan ari da jokatzeko. Herriko X. Mus Txapelketa heldu den hilabetan hasiko da.



Azkeneko urteotan gogotsu ari dira haurrak dantzak ikasten.

Igande huntan herriko talde batek parte hartuko du Donibane Lohitzuneko ikuskizunean. Ikusgarriak 2 oren iraunen ditu. Haundien

sarrerak 30 libera balio du eta haurrak kitto dute.

Ez da diru biltzea, gure kulturaren alde urrats baten egitea baizik. Gastu guziak

ordaindu eta diru pixka bat gelditzen bada, partehartzaile guzientzat zikiro bat izanen da Zugarramurdiko lezeetan.

Urdazubiarrak Urdazuri ikusgarrian

ZUGARRAMURDI

Euskal dantzak ikasten hasia da herriko talde bat

Ortziralero, 9etatik 10etara Sarako Gazteen etxean

KORO eta MARGARI

Aurten ere badago herriko gazte talde bat euskal dantzak ikasten ari dena. Ortziralero 9etatik 10etara Sarako Gazteen etxean ari izen dire jotake, izerdi putzu eginak, baina lorietan.

□ **German Arburua**
herriko intsumisioa epaitu zuten hilaren 9an. Urtebeteko kartzela zigorra ezarri zion epaileak, baina seguraski ez du kartzelera gan behar izanen, ez baitu antezedenterik.



EZKONTZAK

Alberto Mitxelena Iturbide eta Ana Bakero Garate, Lesakakoak, urriaren 23an.

Jose Ramon Garcia Diez eta Miren Kiskitza Zaldia Arozena, Donostiakoak, urriaren 11an.

Jose Juan Gonzalez Delgado eta Maite Matxikote Goñi, Las Palmas eta Berakoa, azaroaren 6an.

Jose M^a Cordoba Elizegi eta M^a Carmen Zubiri Jaurena, Arraioz eta Arizkumgoa, urriaren 30ean.

Jose M^a Almandoz Mendiburu eta M^a Cristina Elizalde Juanikotena, Elbete eta Lekarozkoa, azaroaren 6an.

Pedro Urrutia Berro eta Ana Isabel Aires Nogales, Lekaroz eta Berriozarkoa, azaroaren 6an.

Martin Jose Urtasun Fagoaga eta M^a Jose Alaña Sanchiz, Irurita eta Elbetekoa, azaroaren 6an.

JAIOTZAK

Mikel Olano Otxotorena, Leitza, urriaren 14ean.

Judit Saizar Ardanuy, Leitza, urriaren 26an.

Mikel Astibia Zabaleta, Leitza, azaroaren 3an.

Amaia Petin, Saran, urriaren 28an.

Marga Urrutia, Saran, urriaren 20an.

Julen Errandonea Martin, Beran, urriaren 31n.

Aitor Escagües Dozagarat, Beran, urriaren 27an.

Mikel Azpiroz Goikoetxea, Iruritan, urriaren 20an.

Jabier Urrutia Karrikaburu, Elizondon, urriaren 28an.

Iñaki Maia Ballarena, Elizondon, urriaren 30ean.

Uxo Altzugarai Irazoki, Igantzin, azaroaren 3an.

HERIOTZAK

Maria Concepcion Valcarlos Gonzalez, Doneztebekoa, azaroaren 7an, 89 urte.

Rosario Arribillaga Narbarte, Goizuetakoa, urriaren 31n, 86 urte.

Nazaria Etxekolonea Alzeaga, Elizondon, azaroaren 2an.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,

2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,

4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,

**2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,**


aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,

**bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

Denetarik gauzarik hoberenak.

Irún erdi-erdian. Parkina eta guzi.

Centro Comercial



**LUIS
MARIANO**

Irún

Ehizaren alde eta kontrako arrazoiak mahai baten inguruan bilduak

Ehizaren inguruan nahikoa eztabaida sortu da azken urteotan, batez ere uso-pasa garaietan. Hortaz, ehizia bere osotasunean hartuta, alde eta kontrako iritziak bildu nahi izan ditugu mahai baten inguruan.

Batetik Jabier Zelaieta beratarra eta bertzetik Jose Ramon Amoros arantzakoa. Bata ehizaren aldekoa, bertzea kontrakoa.

Bakoitza bere ikuspegi pertsonaletik solastu zaigu.



ttipi-ttapa. Zein da bakoitzak ehizari buruz duzuen ikuspuntua?

J. R. Amoros. Ez naiz identifikatzen ehiziarekin eta ezta ere ehiztariarekin. Nire ustez naturzaleok eskubidea dugu kontrako iritzia agertzeko beldur eta lotsarik gabe. Honek ez du erran nahi konfliktu bat bilatzen dugunik ehizturien kolektiboarekin. Bakoitzak bere eskubideak defenditu behar ditu. Arazoa zera da:

ehizaren kontrako iritzia duten aunitzen jarrera pasiboa dela, ez direla inplikatzeko, eta ondorioz ehizturiak nahiko lasai bizi dira gaur egun eta gizarteko zenbait sektorek ongi ikusten ditu gainera. Kontu honek, 10-12 urte dituzten mutiko gehienentzat, gizentasunaren adierazpen sendoena ehizturian ikustea ekarri du, eskopeta hartu eta mendira joatea bere aita edo osabak egiten duen bezala. Ehizia-

ri, egia erran, ez diot sentidurik ikusten.

J. Zelaieta. Ni ehizturia naiz eta ehizia defenditzen dut, baina, matiz aunitzekin. Izan zen bolada bat, duela urte gutti, normala zela eskopetarekin mendira joatea eta edozein gauzari tiratzea. Gaur egun, zorionez, gauza horiek superatzen ari dire eta ehizturien %80-90ak errepetatzen ditu dauden legeak. Jendea mentalizatzen ari da eta hasia da ehi-

ziaren kultura berri baten bila. Halere, ikusten dut oraindik lan aunitz dagoela egiteko, batez ere gazteentan. Pasio haundiak daude ehiziarekin, uso-ehiziarekin gehienbatean.

ttipi-ttapa. Hortaz, zein sentidu du gaur egun ehiziaz?

J. Zelaieta. Bistan denez ehiziaren sentidua eboluzionatu egin da denborekin batera. Gaur egun batzuentzat afizioa dago, ber-



«Duela hogei urte baino aisa ehizi gehiago dago gaur egun... erbiak, basurdeak, faisanak»

Jabier Zelaia

Beratarra da eta CAMPeK Beran duen sukurtsaleko zuzendaria. 'Berako Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarteko' idazkaria izana da 10 urtez.

tzen batzuentzat kirol-afizioa... Zer sentidu duen horrek? Errate baterako basurde ehizia, hori baita nere espezialidadea. Berako esperientzia kontatuko dizut. Hau lehen ez zen basurde lekua eta 'Ehiza-Arrantza' elkarteko sekretarioa nintzenean, 7-8 basurde bota genituen Bidasoaz gainaldeko erreserban. Mugaz bertzaldekoekin ere egon ginen eta urte batzuren buruan sekulako basurde pila plantatu zen. Geroztik,

urtero estudio bat egiten dugu, zenbatsu basurde diren ikasi, eta horrekin Plan zinegetiko bat egin zenbat hiltzen ahal diren jakiteko. Kupo bat azken finean. Aurten, adibidez, mugako 5-6 herriotan 40 bat basurde daude eta 15-20 hilko ditugu. Horren sentidua zein den? Ba... protegitu egiten dugu eta aldiberean kontrolatu ere. Orain horrela hasi dire Igantzin, Sunbillan...

J. R. Amoros. Esperientzia hagitz ona, baina

zuentzako, ehizturien probetxurako. Gaur egun horrekin bilatu duzue basurde ehiza justifikatua izatea eremu honetan, hartu duen kopuruagatik animalia kaltegarria bihurtu baita, hemengo mendiak ez baitaude prestatuak hainbertze basurde bazkatzeko, eta orduan nahitanahiez plantaziotan sartzen dire... tira, gaiara itzuliz, zentzurik badu gaur egun ehizak? Argi dago orain inoiz baino sentidu guttiago duela. Begira,

Euskal Herriko mendia aski txikia da eta fauna ere murritza da, eta bertan bizi garenok, berriz, aunitz gara, ehiztariak eta ehiztari ez garenok eta denoi gustatzen zaigu mendira joatea, eta urte guzian mendia betetzen da eta betetze hori udazkenean oraindik gehiago somatzen da...

J. Zelaia. Bai, hori horrela da, baina duela hogeitau urte baino aisa ehizi gehiago dago gaur egun... erbiak, basurdeak, faisanak...

J. R. Amoros. Baina bakarrik ehiztarien probetxurako baldin bada, horrekin ez dugu deus irabazten.

J. Zelaia. Ez, ez, ehiztaria ari da mantentzen...

J. R. Amoros. Bere harrobia ari da mantentzen.

J. Zelaia. Hortan ez dago dudarik, baina zuk artalde bat baldin baduzu, zure probetxurako duzu. Horrek ez du erran nahi ehiza animalia egiten dugunik, ehiza kontrolatu egiten dugu. Diferentzia haundia dago.

J. R. Amoros. Ez nago konforme. Zer sentidu du kanpoko espeziekin errepoplatzea gure mendiak, faisanak eta... Bertako animalia zaindu eta ez ekarri kanpotik.

«Baina bakarrik ehiztarien probetxurako baldin bada, horrekin ez dugu deus irabazten»

ttipi-ttapa. *Erran daiteke Euskal Herrian espezieren bat desagertu dela ehiztarien eraginez?*

J. R. Amoros. Gaur egun naturak duen arazorik larriena ez dut uste ehizia denik, baina bai ehiztariak laguntzen dutela zenbait espezien kopurua murrizten, usoak, oilagorrak...

J. Zelaieta. Hori ez da horrela. Ni ez naiz uso-ehiztaria bainan ikusi dut zer ari diren egiten nekazariak Ukraina, Polonia eta herrialde horietan. Usoei pestizidak ematen dizkiete eben landatan sortzen dizkieten kalteengatik. Denadela, nere iduriko gaur egun ehizaren inguruan bertze kultura bat ari da indartzen. Badaude

oraindik ganberro batzuk zernahiri tiro botatzen diotenak, baina hoiek dire guttiena. Problemarik larriena, nire ustez, nekazaritza intentsibotik, plagizidetatik heldu da, ez ehiztarietatik.

J. R. Amoros. Baina gutti hoiek ere lagundu egiten dute. Gainera, zein neurri hartzen dituzue ehiztariak kontrolatzeko?

J. Zelaieta. Berako Ehizturiaren elkarteak, errate baterako, hori ikustean 5 urterako permisoa kentzen dio

Jose Ramon Amoros

Arantzan bizi da eta bertako eskolan dago irakasle. Deia luzatu genionean ez zuen inolako dudarik azaldu, ez baita lehen aldia gai honetaz solasten dena.



eta multa.

J. R. Amoros. Kasu aunitz izan dituzue?

J. Zelaieta. Bizpahiru kasu bederen ezagutzen ditut. Arrantzaleekin ere berdin.

ttipi-ttapa. *Badago, hortaz, ehiztari eta eskopeteroen artean desberdintzerik?*

J. R. Amoros. Aitortzen dut behin baino gehiagotan zailtasunak izan ditudala bereizketak bilatzeko, baina pentsatzen dut baita ere, justiziazkoa dela bereizketa

hori egitea. Pentsatzen dut baita, izanen direla ehizturiak bere arautegien barnean mugitzen direnak eta beren neurrian bederen, nolabait natura maitatzen dutenak. Halere, iduritzen zait eskopeteroen kopurua hagitza haundia dela. Zuk eman duzun kopurua hagitza bajua iduritzen zait.

J. Zelaieta. Eskopeteroen kopururik haundiena uso-ehizian dago. Etxetik ateri eben gosariarekin, bertaraino kotxean joan, toki gehie-

netan komodidade haundiak dituztenak... Portzentaia? Nik ezagutzen dudan tokitan, Lizuniagan, Etxalarko Usategietan, %10a. Hoiek, kalte haundiak egiten dituzte... putre kolpatuak eta holakoak... eta ehizturiok hori kondentzen dugu. Pasako ehizia kenduta, gainerako guzian gero eta kontrol gehiago dago eta kupoak jartzen dira gainera.

Testua: Joxemanuel IRIGOIEN
Argazkiak: M. K. TOLOSA

Tiburtzio Arraztoa, Laxoa Elkarteko kidea:

«Laxoa ez da kirola bakarrik, gure kultura eta historiaren zati bat da»

*Laxoa denboraldia
aspaldixko akitu da.*

*Urtero bezala,
hainbat pilotari eta
ikusle bildu ditu.*


*Urteko balanzetxo
bat egiteko eta
datozen urteko*

*asmoak jakiteko,
Tiburtzio Arraztoa
Doneztebeko*

*eskolako
irakaslearekin eta*

*Laxoa elkarteko
lehendakariarekin
egon gara.*

KARMELE



ttipi-ttapa. *Kategoria ez-berdinetan, nola joan da laxoa denboraldia?*

Arraztoa. Helduen Baztan-Errekako txapelketa jokatu da, zortzi talderekin. Txapelduna Irurita izan da, Oitzeri 9 eta 7 jokoz irabaziz. Kopa torneoa Doneztebek irabazi zion Oitzeri (9-8). Gazteek (16 eta 18 urte artekoak) eta gaztetxoek ere (16 urtetik behitikoak) izan dute eben txapelketa, eta bietan Iruritak irabazi du. Hemendik kanpo ere jokatu dira zenbait partidurik. Perkain laxoa jokalarieiaren sorterrian Aldudesen, Baztandarren

Biltzarrean, Uharteko Egunean eta zenbait herriko bestetan. Oitzen, gainera, hango hameka pilotari zaharrei omenaldia egin zieten bestetan.

ttipi-ttapa. *Zenbat pilotarik parte hartzen dute txapelketa hauetan?*

Arraztoa. Denen artean ehunen bat pilotarik parte hartu dute.

ttipi-ttapa. *Eta ikusle kopuruaren aldetik...*

Arraztoa. Azken urteotan pixko bat jausti da ikusleen kopurua... finaletan ez, finaletan beti plaza bete egoten da. Lehenbiziko ur-

teetan, nobedade bezala edo, jende gehiago etortzen zen.

ttipi-ttapa. *Laxoa elkar-teren helburua zein da?*

Arraztoa. Gure helbururik nagusia laxoa Baztan eta Malerrekan mantentzea da. Badakigu lehen izan zuen zabalpena lortzea ezinezkoa dela. Baztango Balleko Etxean bada dokumentu bat erraten duena XVIII. mendean Baztango herri guzietan bazegoela laxoa plaza. Joan den mende erdialderaino ia kirol edo joko bakarra zen Euskal Herrian. 1870. urte inguruan hasi zen 'ble' jokia eta frontoiak sortzen

eta laxoa hemen bakarrik gelditu zen.

ttipi-ttapa. *Eta hau zergatik gertatu zen?*

Arraztoa. Laxoa ez da kirol ikusgarria, baina ezin da bertze kirolekin konparatu. Laxoa ez da bakarrik kirola, gure historia eta kulturaren sartzan den gauza bat da. Horregatik garrantzi gehiago eman behar diogu eta gure altxorra bezala gorde.

ttipi-ttapa. *Etorkizunera begira, laxoak izanen du jarraipenik?*

Arraztoa. Bai, baina uste dut jendeak kontzientzia hartu behar duela denon artean kontserbatu behar dugula. Etorkizuna badu, pilotari gehienak gazteak dira eta instituzioek ahal duten moduan laguntzen dute. Baina kontserbatzea gure eskuetan dago, pilotari eta publikoaren eskuetan.

ttipi-ttapa. *Laxoa erre-montearen harrobia dela erraten da...*

Arraztoa. Gazte aunitz laxotik erremontera pasatzen dira. Iruritan badaude hiru profesional, Donezteben bertze hiru, denak laxoan hasitakoak. Profesional mundua tentagarria da, dirua eta fama eta bada-kizu... Laxoan berriz ez dago dirurik, eta aunitz saketik dirua paratu behar.

Aitor AROZENA


Mikel Mindegia, berriz ere Nafarroako aizkolarien txapeldun

Elizondoko ferietan jokaturako finalean, zubietarra errex nagusitu zen

Nafarroako aizkolarari hoberenaren txapela hama-bigarren aldiz eskuratu zuen Mikel Mindegia zubietarrak Elizondoko frontoian urriaren 31an egindako proban.

Donato Larretxea bera-tarrak, lesio bat dela eta, ezin izan zuen txapelketara agertu eta Mindegia ez zuen kontrariorik izan. Lau kanaerdiko, 60 ontzako lau eta bi oinbiko mozten 24 minutu eta 20 segundu behar izan zituen zubietarrak, Floren Nazabaleri 3 minutu luzeko aldea aterez (27' 38"). Ondotik, hirugarren postua Antonio Jaunarena zubietararentzat izan zen, egur txar xamarrek tokatu eta lau aizkora puskatu arren (30' 13"). Laugarrena Senosiain izan zen (33' 14") eta bortzgarrena Iriarte (33' 27").

Proban izan zen ustega-



bekorik ere, aizkora ari zirela Elizondoko frontoiko

argia joan baitzen. Eskerrak laister paratu zutela.

Pilota

Bi partido Lesakako feria egunean

Azaroaren 25ean, Lesakako feria egunean, bi pilota partido jokatu dira Lesakako frontoian arratsaldeko 5etatik aintzine-ra.

Lehenik, bigarren mailako profesionalen txanda: Lujanbio-Taberna, Errandonea II-Urrutiaren kontra.

Profesionalen lehen mailako partidoa berriz:

Ladutxe-Maiz, Bengoetxea IV-Shanti.

Bertzalde, aipatu behar da gogor segitzen duela eskualdeko pilotariekin osatutako bikoteak (Almandoz lesakarra eta Apezetxea goizuetarra) Diario Vascok antolatutako txapelketan.

Jesus M^a Calvo lesakarra irabazle Lizuniagarako XIII. Igoeran

Jesus M^a Calvo lesakarra irabazi zuen Domisaindu egunean Lizuniagarako igoeraren hamairugarren edizioa, 17' 12"ko denbora eginez. Bere gibel-tik, Juanma Irazoki (17' 56") eta Antonio Bru (18' 09") beratarak sartu ziren.

Emakumezkoen mailan Iturengo Maika Ariztegi errex irabazi zuen (21' 55"). Ondotik, Pasai Donibane-ko Lourdes Mariezkurrena (25' 08") eta Irungo Ele-

na Elbusto (27' 15") sartu ziren.

Beteranoen mailan, sailkapen orokorrean laugarrena izan zen Angel Mari Aizpiolea irundarrak irabazi zuen. Bigarrena eta hirugarrena ere irundarrak izan ziren: Ramon Fernandez eta Fulgencio Toro. Junior mailan azkenik, Doneztebeko Jorge Orbegozo gailendu zen, Berako Asier Iturralde, Adrian Gajate eta Jon Bruren aintzinetik.

Hamabostaldiko jokaldiak



Leitzako Aurrera futbol talde nagusia.

Leitzarrek bikain hasi dute aurtengo futbol denboraldia Nafarroako erregional mailan. Lerro hauek idazterakoan lehen postuan daude, 9 partidoetatik 6 irabazi eta bakararra galduz.



Lesakako Udal Kirolgunea.

Igerilekuen zuloa egin ondotik, ez arre eta ez so gelditu da udal kirolgunea egiteko proiektua, dirua akautu dela eta. Dirudienez, futbol zelai berria oraindik luzerako doa. Ezagutuko ote dugu?

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU 63 11 88 ☎

▼ Etxebizitzak

• **Candanchun** aparta-
mendua salgai. 6 milioi pta.
Amueblatua, garage eta
trasteroarekin. ☎ 943-
464360 (gaueko 8-10etara).

• **Pisu** berria eta garagea
salgai. Hiru gela, bi bainu,
komedorea eta terraza. ☎
630407.

• **Sunbillako** baserri bat
bere terreno eta granjarekin
alokatuko nuke. ☎ 637306
eta 450101.

• **ELizondon** edo **Ma-
llerrekan** logela edo pisu bat
konpartitzeko behar dut. ☎
121591 (arratsetan, Pili).

▼ Lana

• **Neska** batek haurrak
zaintzen edo etxeko lanetan
lan eginen luke. ☎ 637396.

• **Pertsona adintuak**
zaintzen edo baserriko la-
netan lan eginen nuke. Es-
perientzia eta kotxea daukat.
Ahal bada Orabidea auzoan.
☎ 581161 (Amaia).

▼ Salerosketak

• 10 urteko **mando** ona
salgai. ☎ 634167.

• 6 urteko **behia** eta egun
guttitako **aretzea** salgai
Lesakan. Behia buztarrian
ikasita da. Josetxo (pilota
plazaren ondoan).

• **Intxaur-landareak**
salgai, 3, 4 eta 5 urtekoak.
☎ 510227.

• **Renault 18** Diesela
salgai, egoera onean. NA-
7365-L. ☎ 510196.

• Propanozko edo egu-
rrezko kalefakziorako **9**
erradiadore 50.000 pztan
salgai. Oraindik estreinatu
gabeak. ☎ 581212.

• Hegaztiak ehizatze-
ko **ehizi txakurrak** salgai di-
tut. ☎ 510362.

• **Ziklomotor** berria
salgai, sorteo baten tokatua.
☎ 174075.

• **Biardizakur**, arrak. Bi
urtekoa debalde emanen
nuke 8 hilabetekoa saldu.
☎ (943) 492044 (Jose Luis).

• **Motoa** salgai, Gas-gas
Contact 250 93koa. Ma-
trikulatua. ☎ 630575.

• **Bideo-jokoak** salgai

(Master Sistem). ☎ 637788.

• **Traktore** txiki bat sal-
gai dugu, oso merke. Agria
markakoa. ☎ 504226.

• **Kamioi** bat, Renault
320 bolquete, SS-AP salgai.
☎ 581161 (Frantzisko).

• **Telefono** portatila sal-
gai, Nokia-101, bi kargado-
rerekin. ☎ 581161. (Fco.)

• **Akumuladoreak** sal-
gai, prezio onean utziko di-
tut. ☎ 592157.

• **Josteko makina** elek-
trikoa, Agfa markakoa sal-
gai. Egoera onean eta gutti-
ibilia. ☎ 635122.

▼ Denetarik

• **Artzai-zakur** Alema-
na daukat, arra, 7 urtekoa,
oso bizkorra eta indartsua.
Bere antzeko zakur eme
batekin gurutzatu nahi dut.
Hau egiteagatik ez dut or-
daintetarik nahi, zakurku-
me bat edo bi baizik. ☎ 943-
611775 (Martin Gortari).

• **Bideo-erreportai** eta
montaiak prezio interesga-
rrian. ☎ 943692352 (Pello).

• **Neska** bat behar da pisu
bat osatzeko Burlatan. Arras

ekonomikoa. ☎ 453174.

• **Doneztebeko** argaz-
kiak nahi nituzke, duela 30
edo 40 urtekoak liburu ba-
tean argitaratzeko. Norbai-
tek baldin badu, eraman di-
tzala Zaldia argazkidenda-
ra.

▼ Harremanak

• **Zugarramurdiko**
Amaia Etxeberriari: zorio-
nak zure urtebetetzean eta
ea ospatzen dugun. Muxu
haundi bat Urdazubiko
Edurne Maskotenaren par-
tez.

• **Leitzako** Pello mai-
suari: etzazu ridikuloan inor
gehiago utzi.

• **Iruitako** Bitto Larra-
mendientzat: zorionak eta
ea txokolatea txurroekin
hartzera konbidatzen gaitu-
zun. Zurekin lanean ibili
garen guztion partez.

• **Yoli** zorionak: 'mayor
de edad' egin zara. Ea me-
rendatzera gonbidatzen
gaituzun. Zure lagunak,
Arantxa, Maite, Ines eta
Mallu.



**GIZONEZKOEN
MODA**

**muñeca
de trapo**

**EMAKUMEZKOEN
MODA**

BIAK, IRUNgo LUIS MARIANON



BORTZIRI

ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

* Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko
antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

**Zure hipoteka zaharrari
ordezkoa ailegatu zaio.**


%8,75ko interesarekin

Pasa zaitez gure
bulegoetatik

- BERA •
- DONEZTEBE •
- LEITZA •
- LESAKA •




CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



ARGIA

EZ GALDU AUKERA HAU!



Datozen asteetan ARGIAren harpidedun egiten bazara
1994ko egutegia dohainik jasoko duzu zure etxean.

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZENA _____ 1. DEITURA _____
2. DEITURA _____ HELBIDEA _____
TFNOA _____ HERRIA _____
KODE POSTALA _____ HERRIALDEA _____
BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____
SUKURTS. HELBIDEA _____ SUKURTS. ZKA. _____
KONTUAREN ZENBAKIA _____

ARGIA: Iratxeko Monastegia, 70 - 3 ezk. 31011 IRUÑEA

HARPIDETZA SARIAK (BEZ barne)

Hego Euskal Herria
10.900 pzta
Ipar Euskal Herria
685 libera
Espainia 10.900 pzta
Beste Atzeriak
14.250 pzta
Airez 22.500 pzta



ZERBITZUAK

Parrokia 5 (lehen Caja Ruralak zuen lokal berean) • DONEZTEBE



Aseguroak



ZUNZARRENeN Kolaboratzailea



Bidai Agentzia

**LAISTER
ZABALIK**

ETXANIZ

Lesakako Iturria anaiak



AZAROAN:

Bañera nahiz
dutxako manparatan
eskeintza bereziak
(kolokatzea gure
kontura)

*Azulejoa eta baldosatik hasi eta azken detallerraino zure
bainua osorik berritzeko gaiak:*

*Sanitarioak, bañerak, manparak, griferiak, mobleak,
ispiluak, kortinak, alfonbrak eta osagarriak*

IRUNen, Juan Arana, 3
Tfnoa eta faxa:
(943) 611767